

## **2017KO URRIAREN 2AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2017KO UDAL AURREKONTUKO 4/2017 KREDITU ALDAKETA.
- 2.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANAK KONTRATATZEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEA.
- 3.- INTXAURRONDOKO LURSAILA EROSTEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- ARANTZEILAI EREMUKO LURSAILA EROSTEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 5.- AGITAX. 2018KO TAXI TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.
- 6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).  
Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).  
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).  
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).  
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).  
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

## **1.- 2017KO UDAL AURREKONTUKO 4/2017 KREDITU ALDAKETA.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzarak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

#### ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	262,33
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	51.465,32
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.683,36
6	INBERTSIO ERREALAK	156.614,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>214.025,01</b>

#### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	34.399,22
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	179.625,79
<b>GUZTIRA</b>		<b>214.025,01</b>

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

## **2.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANAK KONTRATATZEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEA.**

“11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren” barnean jasotako lanak eta proiektua ikusirik, Aecom enpresak idatzitakoa.

Proiektu horretan jasotako lanak, Ingurumen sailburuordearen 2015eko abenduaren 30eko Erabakiaren arabera, 186.812,66 euroko diru-laguntza onartuta dute.

Zentzu horretan, lanen ezaugarriak ikusirik, lanak hasi aurretik, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria emandako industeko baimena jasotzea.

Zegamako Udalak, baimen hori lortzeko dagozkion izapideak burutu ditu eta, 2017ko martxoaren 23an, kutsatzaileak dituzten materialak industeko baimena ematen duen ebazpenaren “proposamena” jaso zen.

Proposamen horrekiko, Zegamako Udalak 2017ko apirilaren 5ean bideratutako idatziaren bidez zenbait eskari aurkeztu zituen adierazitako Zuzendaritzan.

Epealdi honetan ez da adierazitako ebazpena jaso, nolana ere, lanak gauzatzeko epea betetzear dagoela ikusirik, horiek kontratatzekeko prozedurari ekitea beharrezkoa eta presazkoa irizten da, lanak burutu ahal izateko baimena aurki jasoko delakoan.

Nolana ere, eta diruz lagundutako lanak ezarritako epean gauzatu ezingo direla iritziz, horiek justifikatzeko epearen luzapen eskaera bideratu da ere.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak adierazten duenaren baldintzapean, adierazitako planaren onarpena bideratzea proposatzen da ere, dagozkion izapide teknikoak bideratuz.

Era berean, eta Eusko Jaurlaritzako órgano eskudunaren txostenak adierazitakoaren baldintzapean (zentzu honetan, lanak ezingo dira hasi Eusko Jaurlaritzaren indusketa baimena jasotzen ez den bitartean) espedientean jasotakoaren arabera, kontratazio prozedura bideratzea proposatzen da.

Udal arkitektoaren eta Idazkari-kontuhartzaileraren txostenak ikusirik.

Kontratazioa bideratzeko beharrezkoa den kreditua jasota dago 1.000.601.01.162.10.2017 eta 1.000.643.03.463.00.2016 aurrekontu sailetan.

Lanaren birplanteoko akta bideratuko da.

Kontratazioa burutzeko izapide eta erabakiak Udalbatzarrari dagozkiola kontuan izanik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenena.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak bere txostenean adierazten duenaren baldintzapean, Aecom enpresak idatzitako "11. Eremuko (Olaberria) indusketa selektiboaren planaren" onarpena egitea.

Bigarrena.- Kontratazio espedientea bideratzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua ehun eta laurogeita hamasei mila sei ehun eta berrogeita lau euro eta laurogeita hamaika zentimo (196.644,91 €) gehi BEZari dagozkion berrogeita bat mila berrehun eta laurogeita hamabost euro eta berrogeita hiru zentimokoa (41.295,43 €) izango da (guztira, 237.940,34 euro).

Hirugarrena.- 237.940,34 euroko gastua onartzea, dago 1.000.601.01.162.10.2017 eta 1.000.643.03.463.00.2016 aurrekontu sailei egotziz.

Laugarrena.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua arautuko duen baldintza plegua onartzea.

Bosgarrena.- Esleipen prozedura irekitzea, eskaintzen eskaera Construcciones Egaraluz S.L., Lurkide Hondalanak S.L. eta Construcciones Antio S.L. enpresa gaituei zuzenduz. Eskaintzak aurkezteko epea 2017ko urriaren 23an amaituko da.

### **3.- INTXAURRONDOKO LURSAILA EROSTEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Zegamako Udala, Ondaraldeko poligonotik herriguneraino bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko eta GI-2637 errepeidea hobetzeko lanen barnean, Larreakoa baserriaren sarbidea eta ingurunea hobetzea ontzat iritzi du.

Zentzu horretan, Gorrochategui Beguiristáin sendiari lursail bat erosiz, Zegamako Udalak eta Foru Aldundiak adostu dute, sarbidearen hobekuntza lanak, gaur egun burutzen ari diren lanekin batera burutuko direla.

Horrenbestez, Gorrochategui Beguiristáin sendiaren honako lursaila erostea adostu da ere:

- Inchaurrondo izena duen etxearen hegoaldeko erdiko zatiaren zati bat den finka, konkretuki Calzada-Buru sailaren beheko erdia izenekoa (47 lursaila 24 poligonoa *katastroko erreferentzia duena*).

*Eskrituraren arabera, 1.117 m<sup>2</sup>ko azalera du (eta 1383 m<sup>2</sup> katastroko planoaren arabera).*

*Honi emandako balioa: 9.681,00 euro.*

*Inskripzio datuak: 298 liburukia, Zegamako 23 liburua, 60 . orrialdea, 1568 finka, 7. inskripzioa.*

Erosketa hori bideratzeko, 2017ko aurrekontua dagokion kontsignazioa jasota dago.

Adierazitakoaren arabera, eta idazkari-kontuhartzailearen txostenak ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenena.- Adierazitakoaren arabera, Gorrochategui Beguiristáin sendiari, adierazitako lursailak erostea, 9.681,00 eurotan.

Lursaila, guztion erabilerako ondasun bezala jasoko da.

Bigarrenena.- Joseba Izagirre Arozenari, erosketa egintza horiek aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatuak egiteko aginpidea ematea, beharrezkoak balira, dagozkion aurretiazko bereizte, eta bere kasuan, ondorengo elkarte egintzak aurrera eramateko barne, erabaki honen bidez, beharrezkoak izan daitezkeen baimenak emanez.

Hirugarrenena.- Erosketa honek sortzen dituen gastuak Zegamako Udalak ordainduko ditu.

Laugarrenena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

#### **4.- ARANTZEILAI EREMUKO LURSAILA EROSTEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Zegamako Udalak, Arantzelai eremuko pistaren jabetzen egoera finkatzeko helburuarekin, Juana Alcáin Tellería eta beste batzuen jabetzako lursail batzuk eskuratzea ontzat iritzi du, guzti hori, Segurako Notarioa zen Iñigo Escalas Ainzua jaunaren aurrean 2011ko uztailaren 29an sinatutako 166 eskrituran jasotakoaren arabera.

Horren arabera, honako lursailen erosketa bideratzea adostu da:

- Arrizupietaren izeneko lursailaren ekialdeko zatia.

Eskrituraren arabera, 1.286 m<sup>2</sup>ko azalera du.

*Inskripzio datuak: 69 liburukia, Zegamako 6 liburua, 86. orrialdea, 253 finka, 6. inskripzioa.*

- Arrizupietaren izeneko lursailaren mendebaldeko zatia.

Eskrituraren arabera, 1.178 m<sup>2</sup>ko azalera du.

*Inskripzio datuak: 547 liburukia, Zegamako 40 liburua, 96. orrialdea, 252 finka, 18. inskripzioa.*

Lursail horiek, espedientean jasotako balioztatze txostenen arabera, katastroko 7-99 1 eta 2 lursailak dira, eta 5.506,18 euroko balioa ematen zaie.

Erosketa hori bideratzeko, 2017ko aurrekontua dagokion kontsignazioa jasota dago.

Adierazitakoaren arabera, eta idazkari-kontuhartzailearen txostenak ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitakoaren arabera, Juana Alcain Telleria eta beste batzuei, adierazitako lursailak erostea, 5.506,18 eurotan.

Lursaila, guztion erabilerako ondasun bezala jasoko da.

Bigarrena.- Joseba Izagirre Arozenari, erosketa egintza horiek aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatuak egiteko aginpidea ematea, beharrezkoak balira, dagozkion aurretiazko bereizte, eta bere kasuan, ondorengo elkarte egintzak aurrera eramateko barne, erabaki honen bidez, beharrezkoak izan daitezkeen baimenak emanez.

Hirugarrena.- Erosketa honek sortzen dituen gastuak Zegamako Udalak ordainduko ditu.

Laugarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

## **5.- AGITAX. 2018KO TAXI TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak), 2018ko Taxi zerbitzuko tarifak onartzeko eskatuz aurkeztu duen idatziaren berri ematen da.

Zentzu horretan, elkartean egindako azterketa ekonomikoaren arabera, %1,6 igotzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, legez osatzen duten bederatzi kideetatik etorritako Zegama Lantzen taldeko lau kideen eta EH Bildu taldeko lau kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak) egindako proposamena onartzea, eta ondorioz, gaur egun indarrean dauden tarifak % 1,6 igoz, 2018an ezarriko diren Taxi zerbitzuko tarifak honako hauek izango dira:

KONTZERTUA TARIFA	Abiasaria	KILOMETRO IBILITA	ITXARONALDI ORDUA
TARIFA 1*	3,5141	1,1001	21,0129
TARIFA **	3,5141	1,7546	33,0253

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Bigarrena.- Erabaki hau GOIEKlri eta AGITAX-i jakinaraztea.

## **6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 07/0917 erabakia, irailaren 14koa, Mikel Urbiztondo Larreak polikiroldegian burutuko dituen lanen "arrisku ebaluaketaren onespenez txostena" onartuz.
- 08/0917 erabakia, irailaren 14koa, 4571 fakturen erlazioa onartuz, guztira 21.638,65 eurokoa.
- 09/0917 erabakia, irailaren 20koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 010/0917 erabakia, irailaren 26koa, Gipuzkoako Txirrindulari Elkargoari 4.800,00 euro ordaintzea onartuz.
- 011/0917 erabakia, irailaren 26koa, Ostatura eta Kasinoko alokairu kontratuen abuztuko fakturak onartuz.
- 012/0917 erabakia, irailaren 28koa, 4831 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.864,62 eurokoa.
- 013/0917 erabakia, irailaren 28koa, 4837 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.280,00 eurokoa.
- 014/0917 erabakia, irailaren 28koa, 4851 fakturen erlazioa onartuz, guztira 18.872,72 eurokoa.
- 015/0917 erabakia, irailaren 28koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa onartuz.
- 016/0917 erabakia, irailaren 29koa, Udal langileen nominen ordainketa onartuz.

## 7.- GALDE ERANTZUNAK.

- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), pintura eta eskulan tailerren prezioen aldatetari buruz galdetzen du. Zentzu horretan, Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), igoera horrien azalpena ematen du.
- Urko Gomez Ropon zinegotziak (EH Bildu), pilotako lokalari buruz galdetzen du. Alkateak, polikiroldegian bideratzen diren lanei buruzko azalpena ematen du.

Aztartzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasorarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017ko .....k .....

### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2017.

O.E./ VºBº  
ALKATEAK/EL ALCALDE

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO